

ITZ BI

LUIS CARRIL TA BERE MUTILLAI.

Ill onen 2-yan irabazi diyozute Ondarruarrai, guztiz ots-aundikua izan dan estropara bat.

Asko eta asko itz egiñ eta izkribitu da beraren gañian, ta eznezaket gai ontan gauza berririk esan; baña nik ere maite zaituztet nere modura, soñu eta zalapartik gabe, eta nere biyotzak eskeiñtzen dizkitzute itz bi.

Beñere ez bezela zegon gure kayia, arráunak alcharik, garailari, zuen echietara etorri ziñaten arratsalde gogoangarri artan; mereziya zenuten paregabeko ongi-etorri onoretsu ura; atsegiñezbeterik aitortzen det.

An arkitzen nitzan ni ere, choko batetik begira, baña, nai eta nai ez nuela, musika, poza eta zoramen arren guztiyaren erditik, nere begiyak zijoazen ¡*Mari!* illezkorrak daukan aldare chiki artara!... eta nere buruarekiñ itzketan jarririk, niyon: menturaz ustekodu oraiñ norbaitek gizon abek eta ondarruarrak, estroparan berotu diralako, elkarren kontra gorroto pisken bat idukiko dutela. ¡Ez milla bider! Euskaldúnak batzuek eta bestiak, anayak denak, eta batez ere denak arrantzaliak, izangoda gero ere beren artian lengo adiskidetasuna, lengo griña bera elkarri laguntzeko, Mariren gisa besterengatik biziya emateraño! Ta ontan pensatzen nuenian... a!... zuetako bakoitzian *Mari* bat agertzen zan nere begiyetan, Zerua goyan, ura bian, ta bularrian eziñ kabitu alako bigotz banarekiñ! ¡O, bai! ¡zér aundiya, zér ederra zeran ¡ichas gizona!

Emen bukatuko nuke, Eguerriyak ezpaletoz; baña begira, Luis: zu ta zure lagunak festa festen gañian datorkizutela arkitzen zerate;

zorionian izan deriyela. Denbora berian, Ondarruar arrantzalien eche askotan tristura nabaitzen det; aita batek jokatu ta galdu ditu chalupa ta arrantzako sariak, eta bere familiyan goibel dijuaz eguna ta gaba; etorriko da laister onenzaro, ta sukaldi artan ez da pozarik izango; ta bigaramonian, Eguerri egun aundiyan, eskatuko ditu neškak elizara apaiñ-apaiñ juateko amak agindu zizkan zapatak edo soñeko berriya: aitak orduan, latz, gogor, esango ditu itz batzuek, eta neška... ne-garrez juango da! ¿Ez da egiya, Luis, obeto egiñ lekiyokela kontra bendabal eta ekaitzik izugarriyenari, neška gašu orren malkuai baño? A!... nik dakitana da, euskaldun guztiyak nobliak diralarik, ez dala iñor donostiarrari irabaziko diyonik biyotzaren samurtasunian ¡ez!, eta argatik ustedet estropa-festa aundi aben errematerik ederrena izango litzakela zuen aurrak Ondarruako aurrari zerbait siñale egitia, guztiyok anaitzeko Jesús-Aurra jayo zan egun artarako! ¡Bai! ¡Bizi gaitian elkar maiterik! Festa t' atsegiñ luzienak laburrak dira, kia bezela dijuaz, gurekiñ batian. Gaur bagera, bigar ez; urak edo lurrak laister irichiko gaitu, eta utsa litzake emengo estropara guztiyak irabaztia, *ango!* estropara galduko bagenu. ¡Boga mutillak, boga, Zeru aldera!

Zuena, erriz ta biyotzez,

ANTONIO ARZÁC.

Donostiyan, 1890-garren Ama Birjiña Konzeziyoko egunian.

